

NAN	IZENA
78.908.186-Q	Villa Olalde, Ana
30.667.793-F	Zuazola Gorroño, Igor

BAZTERTUAK

NAN	IZENA	ZERGATIA
78.875.016-N	Antuñano Arteche, Unai	2
X-7416484-L	Rosado Segura, Wendy Cruz	1

- 1.- Eskatutako tituluen jabe dela ez egiaztatzea.
- 2.- Eskaera epez kanpo aurkeztea.
- 3.- NANA ez aurkeztea.

Lanpostuaren izena: administraria.

ONARTUAK

NAN	IZENA
18.592.225-Z	Perelló Ladislao, Zuriñe

Bigarren.- Ebazpen hau udal iragarki taulan eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Zerrenda horiek ALHAOan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun izango dira erreklamazioak aurkezteko.

Alkateak eta idazkariak izenpetuak. Izenpe irakurtezinak.

Amurrio, 2006ko uztailaren 19a.- Alkatea, PABLO R. ISASI.

ARAMAIO

4.718

Bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatuarengatik edo ustiaketa bereziarengatik (hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde) ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

1. Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat, udalbatzak hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatuarengatik edo ustiaketa bereziarengatik ordaindu beharreko tasak arautu eta eskatzen ditu.

2. 2.- Ondorio hauetarako, honako hauek dira hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak:

a) Argindarrez, urez edo gasez hornitzen duten enpresak.

b) Sarearen edo instalazioen jabe izan ala ez, jendeak eskueran dituen telekomunikazio zerbitzua eskaintzen duten enpresak, baldin eta oro har edo noizbait bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatua edo ustiaketa berezia egiten badute.

c) Hornidura-zerbitzuak eskaintzen dituen beste edozein enpresa, baldin eta zerbitzu hori eskaintzeko bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera egiten badute hodiak, kableak eta gainerako instalazioak sartu edo jartzean.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean zerbitzu hori banatu edo eskaintzen dutenak daude.

2. artikulua.- Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA-GAIA

3. artikulua.

1. Zerga-gaia da hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatua edo ustiaketa berezia, baldin eta hornidura horiek interes orokorrekoak badira edo auzotarren gehiengoari eragiten badiote.

DNI	NOMBRE
78.908.186-Q	Villa Olalde, Ana
30.667.793-F	Zuazola Gorroño, Igor

EXCLUIDOS

DNI	NOMBRE	CAUSA
78.875.016-N	Antuñano Arteche, Unai	2
X-7416484-L	Rosado Segura, Wendy Cruz	1

- 1.- No acreditar estar en posesión de la titulación exigida.
- 2.- Presentación de instancia fuera de plazo.
- 3.- No presentar DNI.

Denominación de la plaza: Administrativo.

ADMITIDOS

DNI	NOMBRE
18.592.225-Z	Perelló Ladislao, Zuriñe

Segundo.- Publicar la presente Resolución en el Tablón de Anuncios Municipal y en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, abriendo un plazo para presentación de reclamaciones de 10 días a partir del día siguiente a la publicación de las citadas listas en el BOTH A.

Firmados y rubricados, Alcalde y Secretario, ambas firmas ilegibles.

Amurrio, a 19 de julio de 2006.- El Alcalde, PABLO R. ISASI.

ARAMAIO

4.718

Ordenanza Fiscal Municipal reguladora de la Tasa por Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Suelo, Subsuelo o Vuelo de las Vías Públicas Municipales, a favor de Empresas Explotadoras de Servicios de Suministro.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

1. Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, a favor de empresas explotadoras de servicios de suministro

2. A estos efectos, tendrán la consideración de empresas explotadoras de servicios de suministro:

a) Las empresas suministradoras de energía eléctrica, agua o gas.

b) Las empresas que presten servicios de telecomunicaciones disponibles al público mediante utilización, total o parcial, de redes públicas de telecomunicaciones instaladas con utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, con independencia de la titularidad de las redes o instalaciones.

c) Cualesquiera otras empresas de servicios de suministros que utilicen para la prestación de los mismos, tuberías, cables y demás instalaciones que ocupen el suelo, vuelo o subsuelo municipales.

3. A los efectos de lo establecido en este artículo se incluirán entre las empresas explotadoras de servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.

Artículo 2.- La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.

1. Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, a favor de Empresas Explotadoras de Servicios de Suministros que resulten de interés general o afecten a la generalidad de una parte importante del vecindario.

2. Kuantifikazio erregimen hori aurreko artikuluan aipatutako enpresei aplikatuko zaie, bai, hornitzeko erabiltzen duten sarearen titular badira, bai, sare horien titular izan ez arren, beraiek erabiltzeko edo haietara sartzeko edo interkonektatzeko eskubidea badute.

3. Tasaren kuantifikazio erregimen berezi horretan ez dira sartuko telefonia mugikorrekotako zerbitzuak.

4. Tasa hau eta zerbitzuak eskaintzeagatik edo toki erakundeen eskumen diren jarduerak egiteagatik ezar daitezkeen tasak bateragarriak dira. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresa horiek 41/89 Foru Arauak 231.b) artikuluan araututakoak beteko dituzte. Horiek horrela, tasa hau ordainduz gero, ez dute ordaindu beharko bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatu edo ustiaketa bereziari darizkion beste zenbait tasa.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1. Pertsona fisikoek eta juridikoek eta Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan adierazitako entitateak dira subjektu pasibo zergapekoak, baldin eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatua edo ustiaketa berezia egin eta hornidura horiek interes orokorrekoak izan edo auzotarren gehiengoari eragiten badiote.

2. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean zerbitzu hori banatu edo eskaintzen dutenak daude.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

5. artikulua.

Salbuespenak eta bestelako zerga-onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

V. ZERGA-OINARRIA

6. artikulua.

1. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek zerbitzu horiek eskaintzeagatik udalerrian urtero lortzen dituzten diru-sarrera gordinen zehaztuko dute.

2. Diru-sarrera gordin izango dira udalerrian eskainitako zerbitzuengatik jasotakoak.

3. Ez dira diru-sarrera gordin izango eskainitako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresaren beraren diru-sarrera ez diren hirugarrenek jasotako zenbateko eta partidak ere. Era berean, honakoak ez dira fakturaziotik datozen sarrera gordinen artean sartuko: Ekonomia Ministerioaren Argindarra Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroaren 1. edo 2. Sekzioan izena emanda duten instalazioetan zerga-erregimen berezi honen pean dagoen energia sortzeko lehengai gisa erabiliko diren hornidura zerbitzuengatik jasotako diru-kopuruak.

4. Hornitzean, bereak ez diren sareak erabiltzen dituzten enpresek diru-sarrera gordinetik kenduko dituzte beste enpresa batzuen sareetara sartu edo interkonektazioa egiteagatik horiei ordaindutakoak. Sare horien jabe diren enpresetarako, berriz, zergati horregatik jasotakoak diru-sarrera gordin izango dira.

5. Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren 108. artikuluan eta Zerga Ikuskatzailearen Arautegi Orokorren 37. artikuluan xedatutakoaren ildotik, sareen jabe diren enpresek beren sarera sartu edo interkonektatzeagatik ordaintzen dizkieten enpresei buruzko argibideak emango dizkiote udalari, baldin eta azken horrek eskatzen badizkie argibide horiek.

VI. KUOTA

7. artikulua.

1. Zerga kuota udalerrian urtero lortzen duten diru-sarrera gordinaren % 1,5 izango da.

2. Aprobetxamendu berezia dela eta, udal jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berre-raikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du

2. Este régimen de cuantificación se aplicará a las empresas mencionadas en el artículo anterior tanto si son titulares de las correspondientes redes a través de las cuales se efectúan los suministros como si, no siendo titulares de dichas redes, lo son de derechos de uso, acceso o interconexión a las mismas.

3. No se incluirán en este régimen especial de cuantificación de la tasa los servicios de telefonía móvil.

4. Esta tasa es compatible con otras tasas que puedan establecerse por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia local, de las que las empresas explotadoras de servicios de suministro deban ser sujetos pasivos conforme a lo establecido en el artículo 231.b) de la Norma Foral 41/89 quedando excluida, por el pago de esta tasa, la exacción de otras tasas derivadas de la utilización privativa o el aprovechamiento especial constituido en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales.

III. SUJETO PASIVO

Artículo 4.

1. Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava, titulares de las empresas explotadoras de servicio de suministros que resulten de interés general o afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario y utilicen privativamente o aprovechen especialmente el suelo, subsuelo o vuelo de la vía pública municipal.

2. A los efectos de lo establecido en este artículo se incluirán entre las empresas explotadoras de servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 5.

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 6.

1. La base imponible de la tasa vendrá determinada por los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal las empresas explotadoras de servicios de suministros.

2. Serán ingresos brutos aquellos imputables a la entidad que hayan sido obtenidos por la misma como contraprestación por los servicios prestados en el municipio.

3. No se incluirán como ingresos brutos los impuestos indirectos que graven los servicios prestados ni las partidas o cantidades cobradas por cuenta de terceros que no constituyan un ingreso propio de la empresa explotadora de servicios de suministro. Asimismo, no se incluirán entre los ingresos brutos procedentes de la facturación, las cantidades percibidas por aquellos servicios de suministro que vayan a ser utilizados en aquellas instalaciones que se hallen inscritas en la sección 1ª ó 2ª del Registro Administrativo de Instalaciones de Producción de Energía Eléctrica del Ministerio de Economía, como materia prima necesaria para la generación de energía susceptible de tributación por este régimen especial.

4. Las empresas que empleen redes ajenas para efectuar los suministros deducirán de sus ingresos brutos de facturación las cantidades satisfechas a otras empresas en concepto de acceso a interconexión a las redes de las mismas. Las empresas titulares de tales redes deberán computar las cantidades percibidas por tal concepto entre los ingresos brutos de facturación.

5. En virtud de lo establecido en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria y el artículo 37 del Reglamento de Inspección del Territorio Histórico de Álava, las empresas titulares de las redes deberán aportar la información que el Ayuntamiento le requiera sobre las empresas de las que perciban ingresos en concepto de acceso a interconexión a las redes.

VI. CUOTA

Artículo 7.

1. La cuota tributaria será el 1,5 por 100 de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal.

2. Cuando el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiera lugar, estará obligado al

onuradunak, baita horri dagokion zenbatekoa alde zurretik gordailatu ere.

Kalteak konponezinak balira, udalak kalte-ordaina jasoko luke, apurtutako ondasunek edo hondatutako kalteek egiten dutenaren parekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu, ez zati batean ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte-ordain eta itzulketak.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.

1. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatuarengatik edo ustiaketa bereziarengatik ordaindu beharreko tasa ustiaketa berezia hasten denean ordainduko da eta beti hurrengo urteko urtarilaren batetik aurrera.

2. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla eta, jabari publikoaren aprobetxamendurik ezin bada egin, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. artikulua.- Udalak dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa ordainduko da.

IX. TASEN KUDEAKETA

10. artikulua.- Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek hiruhileko bakoitzeko lehen hamabost egunetan aurreko hiruhilekoan lortutako diru-sarrera gordinei buruzko aitorten ulergarria aurkeztuko dute udal bulegoetan. Aitorten horrekin batera, besteak beste, udalerrian fakturatutakoaren ziurtagiriak eta administrazioak eska dezakeen beste edozein aurkeztuko dira.

11. artikulua.

1. Udalak hiruhileko bakoitzari dagozkion likidazioak egingo ditu. Likidazio horiek behin-behinekoak izango dira egiaztatu arte. Egiaztatutakoan, behin betiko likidazioa egin eta horren jakinarazpena egingo zaio interesdunari. Araututako epea bukatutakoan, premiamendu bidez eskatuko zaio zorra zergapekoari.

2. Dena den, behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira aurreko artikuluan aipatutako aitortena aurkezten denetik hiru urte igarotakoan.

3. Artikulu honetan eta aurrekoan jasotako kudeatze arauak osagarriak izango dira, baldin eta udalaren eta hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean alde zurretiko hitzarmenak edo akordioak badaude.

12. artikulua.- Zerga arau-hausteak edo antzekoak eta, horiek direla eta, jarri beharreko zehapenak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Zerga Ikuskatzailearen Arautegi Orokorrean xedatutakoaren arabera arautuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabilera pribatuarengatik edo ustiaketa bereziarengatik (hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde) ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza honi 2006ko apirilaren 19an eman zitzaion behin-behineko onarpena. Jendaurrean jarrita egon den aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez zaionez gero, behin betiko onartu da eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

4.717

Iragarkia

Toki Erakundeen Aurrekontuen 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, 1/06 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, espediente hori behin betiko onartu da. Hona hemen:

441.734.002	ARROIABEKO SANEAMENDUA. 2. FASEA	125.134,07 EURO
540.227.000	ARGIAK, ENERGIA ERAGINGARRIA	12.000,00 EURO
531.734.003	BETOLAZA-ZIRIANO ERREPIDEA	69.850,97 EURO

reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, el Ayuntamiento será indemnizado en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

El Ayuntamiento no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 8.

1. La tasa por ocupación del dominio público municipal por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro se devengará cuando se inicie el aprovechamiento especial, y posteriormente, el 1 de enero de cada año.

2. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el aprovechamiento del dominio público no se desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

VIII. LIQUIDACIÓN E INGRESO

Artículo 9.- Por el Ayuntamiento se practicará la liquidación que proceda, ingresándose la cantidad liquidada.

IX. GESTIÓN DE LAS TASAS

Artículo 10.- Las empresas explotadoras de servicios de suministros, deberán presentar en el Ayuntamiento en los primeros quince días de cada trimestre natural, declaración comprensiva de los ingresos brutos obtenidos en el trimestre anterior. Dicha declaración deberá acompañarse de los documentos acreditativos de la facturación efectuada en el municipio, así como la que en cada caso solicite la Administración Municipal.

Artículo 11.

1. La Administración Municipal practicará las correspondientes liquidaciones trimestrales que tendrán carácter provisional hasta que sean realizadas las comprobaciones oportunas. Efectuadas dichas comprobaciones se practicará liquidación definitiva que será notificada al interesado. Transcurrido el plazo en periodo voluntario se procederá a exigir el débito por vía de apremio.

2. En todo caso, las liquidaciones provisionales adquirirán el carácter de definitivas cuando transcurran tres años a contar desde la fecha de presentación de la declaración a la que se refiere el artículo anterior.

3. Las normas de gestión recogidas en este y el artículo anterior tendrán carácter supletorio cuando existan convenios o acuerdos entre el Ayuntamiento y las Empresas Explotadoras de Servicios de Suministros.

Artículo 12.- En todo lo referido a infracciones tributarias y sus distintas calificaciones, así como las sanciones que a las mismas correspondan, se aplicará lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria y en la Ordenanza Fiscal General.

DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal Municipal reguladora de la Tasa por Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Suelo, Subsuelo o Vuelo de las Vías Públicas Municipales, a favor de Empresas Explotadoras de Servicios de Suministro, fue aprobada provisionalmente el 19 de abril de 2006, entendiéndose aprobada definitivamente, al no haberse presentado reclamaciones durante el período de exposición pública, permaneciendo vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

4.717

Anuncio

De conformidad con los dispuesto en los artículos 34.3 y 15 de la Norma Foral 3/2004, Presupuestaria de las entidades locales, y no habiéndose formulado reclamaciones ni observaciones de ningún tipo contra el acuerdo de aprobación inicial del expediente de Crédito Adicional número 1/06, dicho expediente queda definitivamente aprobado, en la forma siguiente:

441.734.002	SANEAMIENTO ARROIABE 2º FASE	125.134,07 EUROS
540.227.000	EFICIENCIA ENERGÉTICA ALUMBRADO	12.000,00 EUROS
531.734.003	CAMINO BETOLAZA-ZIRIANO	69.850,97 EUROS